Ainara Iraeta Usabiaga (1. guztira 1)
Herritarrasuneko teknikaria
Sinaduraren data: 27/06/2025
HASH: 0ed7bb2aa6b68df600b647c97ea84012

**MENDAROKO LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA ZERBITZUEN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.**

**1.- SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**

**1.1. Haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako udal politika definitzea**

Mendaroko Udalaren haur, nerabe eta gazteen sustapenerako politiken xedea honako hau da: udalerriko haurrei, nerabeei eta gazteei garatzeko eta haurtzaroaz, nerabezaroaz eta gaztaroaz, egonkortasunez eta jarraikortasunez gozatzeko aukera eskaintzea:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizitzako garai gisa, non pertsona bakoitza bere bizitzako protagonista, herritar-eskubideen subjektua eta giza ehunduraren ezinbesteko atala den.

- Heldutasunari, ikaskuntzari, gaitasun pertsonalei eta gizarte loturei esker, emantzipazio prozesu progresiboa dakarren garai gisa. Hau da, heldutasunerako trantsizio arrakastatsua eta atsegina, non erabakiak hartzeko, eta bizitzako proiektu pertsonalak abian jartzeko autonomia mailarik gorena eskuratzen den.

Prozesu honetan laguntzeko, administrazioak talde hau (haurrak, nerabeak eta gazteak) osatzen duten adin tarte guztiei etengabe arreta eskaintzeko beharrezkoak diren zerbitzuak abiarazten ditu.

Mendaroko kasuan, Udalak ondorengo zerbitzu hauek dauzka:

LUDOTEKA haurtzarorako
GAZTELEKUA nerabezarorako

Ludoteka eta Gaztelekuko ohiko ekintzez gain, besteak beste ondorengo ospakizunak barneratuko dira, jendartearekin orokorrean partekatuko direnak:

Martxoak 8, emakumearen eguna.
San Juan Gaua.
Gau Beltza
Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurka.

**1.2. Zehar-lerroak**

Promozio edo Gazteria politikaren ustetan, ondorengo lau lan ildoak zeharkakoak dira, eta kontuan izan beharko dira burutzen diren jarduera guztietan.

1.2.1. Hizkuntza normalizazioa
1.2.2. Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna
1.2.3. Inklusio eta integrazioa
1.2.4. Parte hartze komunitarioa

**1.3. Haurrentzako zerbitzua eta nerabeentzako zerbitzua**

**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE LUDOTECA Y GAZTELEKU EN MENDARO.**

**1.- INTRODUCCIÓN Y JUSTIFICACIÓN**

**1.1 Definición de la política municipal de Infancia, Adolescencia y Juventud**

El objetivo de las políticas de promoción de la infancia, adolescencia y juventud del Ayuntamiento de Mendaro es ofrecer a los niños, niñas, adolescentes y jóvenes del municipio la posibilidad de desarrollarse y disfrutar de la infancia, adolescencia y juventud, estabilidad y continuidad:

- Como etapa vital con valor y significado en sí misma, en la que cada persona es protagonista de su vida, sujeto de derechos de ciudadanía y parte indispensable del tejido social.

- Como etapa que, mediante la maduración, aprendizaje y fortalecimiento de capacidades personales y vínculos sociales, posibilita un proceso progresivo de emancipación, es decir, una transición exitosa y satisfactoria a la condición adulta, en la que se alcanza la mayor autonomía para la toma de decisiones y su puesta en práctica en un proyecto personal de vida.

Para favorecer este proceso, la administración se dota de una gama de servicios suficientes para cubrir el continuo de atención a las diferentes franjas de edad que forman el colectivo (infancia, adolescencia y juventud).

En el caso de Mendaro, el Ayuntamiento cuenta con los siguientes servicios:

LUDOTECA para la infancia
GAZTELEKU para la adolescencia

Además se integrarán a las actividades habituales de la ludoteca y Gazteleku entre otras las siguientes celebraciones, a compartir con el público en general:

8 de marzo día de la mujer.
Noche de San Juan.
Noche Negra
25 de noviembre, contra la violencia hacia la mujer.

**1.2. Líneas transversales**

La política de Promoción o de Juventud considera transversales cuatro líneas de trabajo que han de estar presentes en todas las actuaciones que se desarrollen:

1.2.1. Normalización lingüística
1.2.2. Igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres
1.2.3. Inclusión-integración
1.2.4. Participación comunitaria

**1.3. El Servicio para la infancia y el Servicio**

Baliozkotze Kodea: CDAX5TMM4QGSK5RGMW34EH4
Egiaztapena: https://mendaro.egoitza.elektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 18

| | |
|---|---|
| **Haurrentzako zerbitzua:**<br><br>Hasieratik, haurren garapenean, esanguratsuak dira familiartetik eta eskolatik kanpo dauden jolaserako uneak eta esparruak, balio hezitzailea baitute.<br><br>Zerbitzu honen bidez, eskaintza egonkorra eskaini nahi da une eta esparru horietarako. Proposamen hau egokituz joango da haurtzaroan zehar, eta Administrazioari bide emango dio bere proiektuaren misioa bete ahal izan dezan.<br><br>**Nerabeentzako zerbitzua:**<br><br>Nerabezaroaren garaian areagotu egiten da pertsonek propioagotzat sentitzen dituzten uneak eta esparruak edukitzeko beharrizana, familia eta eskola girotik kanpo, haien kideekin egon ahal izateko.<br><br>Nerabeentzako zerbitzuak denbora eta espazio horiek betetzeko eskaintza egonkorra izan nahi du. Horrez gain, hurbileko pertsona helduen gertutasuna ahalbidetzen da, errespetuan oinarritua. Gertutasun horrek nerabezaroan berezkoak diren nahimen eta ekinak erraztu eta ahalbidetzen ditu.<br><br>**1.4. Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuaren jarduera ildoak.**<br><br>Haurren, nerabeen eta gazteen beharrizanak etengabe antzeman behar direla kontuan izanik, zerbitzu balioanitzek zenbait jarduera esparru zabal edo jarduera mota eskaintzen dizkiete zerbitzuen hartzaileei, beharrei erantzun ahal izateko.<br><br>• Informazioa<br>• Orientabidea<br>• Akonpainamendua<br>• Aisia hezitzailea<br>• Adierazpenak egiteko eta parte hartzeko bideak<br>• Sormenerako eta produkziorako laguntzak<br><br>Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Promoziorako Sistemaren (Gaztematika) baitan, jarduera esparru hauen definizioan aurrera egiten ari dira. Proposamen hauek garatzen doazen heinean, hainbat doikuntza egin beharko dira Udalaren zerbitzuak ulertzeko eta garatzeko eran, egiten diren adierazpenei egokitu ahal izateko.<br><br>Arestian adierazitakoaz gain, haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak erabiltzaileekin elkarreragin zuzena izango du, eta halaber, lankidetzarako dinamikak eta sare lana sustatuko ditu haurren eta nerabeen garapen prozesuetarako eta emantzipaziorako eta haien eskubideen gozamenerako garrantzitsuak izan daitezkeen esparruekin, sistemekin edo politikekin. Gainera, pertsona hartzaileek partaidetza aktiboa izango dute. Ildo horretatik, metodologia hartzailea zerbitzu bakoitzak izango duen oinarrizko lanabes estrategikoa izango da. | **adolescencia**<br><br>**Servicio para la infancia:**<br><br>Desde muy pronto en el desarrollo infantil tienen sentido unos tiempos y espacios centrados en el juego como valor educativo pero diferenciados de los tiempos y espacios intrafamiliares y escolares.<br><br>Estos servicios pretenden ser una oferta estable para esos tiempos y espacios. Una propuesta que se va adaptando a lo largo de la etapa infantil y que permite a la Administración cumplir con la misión de su proyecto.<br><br>**Servicio para la adolescencia:**<br><br>Durante la adolescencia aumenta la necesidad de que las personas tengan momentos y ámbitos que sientan más propios, fuera del ambiente familiar y escolar, para poder estar con sus compañeros.<br><br>El servicio para adolescentes pretende ser una oferta estable para esos tiempos y espacios, a la vez que ofrece una proximidad respetuosa de personas adultas cercanas, que facilita y apoya algunos de los ensayos y los intentos propios de la adolescencia.<br><br>**1.4. Áreas de actuación del servicio para la infancia y la adolescencia.**<br><br>Teniendo en cuenta como base la detección continua de las necesidades de los/as niños/as, adolescentes y jóvenes, los servicios polivalentes ofertan a sus personas destinatarias una serie de áreas de acción o tipos de actuación mediante los que darles respuesta:<br><br>• Información<br>• Orientación<br>• Acompañamiento<br>• Ocio educativo<br>• Canales para la expresión y participación<br>• Apoyos para la creación y producción<br><br>Desde el diseño del Sistema de Promoción infantil y juvenil de Gipuzkoa, Gaztematika, se está desarrollando y avanzando en la definición de estas áreas de actuación, así como en la definición de los servicios para la infancia y la adolescencia. En la medida en que vayan desarrollándose estas propuestas deberán realizarse ajustes en la manera de entender y desarrollar los servicios municipales, adaptándose a las indicaciones que se vayan realizando.<br><br>Además de lo anteriormente indicado, el servicio para la infancia y la adolescencia, además de contar con una interacción directa con sus personas destinatarias, promoverá dinámicas de colaboración y trabajo en red con diferentes ámbitos, sistemas o políticas que sean importantes en los procesos de desarrollo y emancipación de los niños, niñas y adolescentes y de disfrute de sus derechos, teniendo siempre las personas destinatarias una participación activa. En este sentido, la metodología participativa será una de las herramientas fundamentales y estratégicas de cada uno de los servicios. |

Baztertzeko kodea: 3CAXGTLM4AQ2SK5RGAMW34HH4
Bertan sartu: https://mendaro.sedipualo.com/PortalCiudadano/verifyDocs.action
Egiaztatu sinadura elektronikoa eta/edo bertan sartu Mendaroko Udalaren esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 18

| | |
|---|---|
| Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuaren jarduera esparru bakoitzaren edukia ondorengoa izango da: | El contenido de cada una de las áreas de actuación del servicio para la infancia y la adolescencia sería el siguiente: |
| **1.4.1. Informazioa** | **1.4.1. Información** |
| Informazio erabilgarria, egiazkoa eta nahikoa izango dena, garaiz, eraginkortasunez, era antolatuan eta esanguratsuan ematea, haurrek eta nerabeek haien esku dauden baliabideak eta aukerak erabili ahal izan ditzaten (kultura, hezkuntza, osasuna, e.a.). | Información con datos útiles y veraces, proporcionados a tiempo, en cantidad suficiente, eficientemente y de manera organizada y significativa, para facilitar que los niños y niñas y adolescentes accedan a los recursos y oportunidades que están a su disposición (cultura, educación, salud, etc.) |
| **1.4.2. Orientabidea** | **1.4.2. Orientación** |
| Orientabidea haurrei eta nerabeei eskaintzen zaien laguntza da, dauden aukerak antzeman eta haien bizitzako arlo desberdinekin zerikusia duten erabakiak hartu ahal izan ditzaten. Inoiz, pertsona beste agente edo instantzia batera bideratuko da, duen beharrizanari erantzun hobea eman ahal izateko. | La orientación es una ayuda a las niñas y niños y adolescentes para que puedan identificar alternativas y tomar decisiones en relación a diferentes aspectos de sus vidas. A veces se derivará la persona hacia otro agente o instancia que pueda responder mejor a la necesidad que presenta. |
| **1.4.3. Akonpainamendua** | **1.4.3. Acompañamiento** |
| Akonpainamendua nolabaiteko egonkortasuna eta jarraikortasuna duen harremana da, haurrei eta nerabeei erabakiak hartzen, baliabideak erabiltzen, jarduerak egiten, iritziak bereizten eta loturak eraikitzen laguntzen diena. Akonpainamenduak pertsonen arteko harreman elkarreragilea eta zuzena eskatzen du, eta halaber, pertsonen arteko konfiantza eraikitzean oinarritzen da. | El acompañamiento es una relación de cierta estabilidad y continuidad para la toma de decisiones, utilización de recursos, realización de actividades, discernimiento de opciones y construcción de vínculos por parte de las niñas, niños o adolescentes. El acompañamiento exige una relación interpersonal interactiva, directa, y se basa en la construcción de confianza interpersonal. |
| **1.4.4. Aisia hezitzailea** | **1.4.4. Ocio educativo** |
| Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak haurren eta nerabeen aisialdian egiten den esku-hartze mota bat abiaraziko du. Esku-hartze honek, sortzailea eta atsegina izateaz gain, ageriko helburuak lortu nahi ditu hezkuntzaren alorrean (alegia, bizitzarako gaitasunak, jarduerak eta balioak eskuratzea edo garatzea xede duen esku-hartzea). | El Servicio para la infancia y la adolescencia pondrá en marcha un tipo de intervención realizada en el tiempo libre de las niñas y niños y de los/as adolescentes, intervención que además de ser creativa y gratificante, persigue conseguir unos objetivos educativos explícitos (es decir, una intervención que pretende la adquisición o desarrollo de capacidades, actitudes y valores para la vida). |
| **1.4.5. Adierazpenak egiteko eta parte hartzeko bideak** | **1.4.5. Canales para la expresión y participación** |
| Jarduera esparru honen helburua da benetako aukerak sortzea eta dinamizatzea, haurrek eta nerabeek, hein batean, haurrentzako edo nerabeentzako zerbitzuei buruzko nahiz haien bizitzako beste esparru garrantzitsu batzuei (kultura, hezkuntza, osasuna, e.a.) buruzko iritziak eman, proposamenak egin, erabakiak hartu, erantzukizunak onartu, gestioa bideratu eta kontrolatu ahal izan ditzaten. | Esta área de acción supone la generación y dinamización de oportunidades reales para que las niñas y niños y las personas adolescentes puedan manifestar opiniones, trasladar propuestas, tomar decisiones, asumir responsabilidades, gestionar o cogestionar y ejercer el control en alguna medida tanto sobre los Servicios para la infancia y adolescencia, como sobre otros ámbitos relevantes de sus vidas (cultura, educación, salud, etc.) |
| **1.4.6. Sormenerako eta produkziorako laguntzak** | **1.4.6. Apoyos para la creación y producción** |
| Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak benetako aukerak sortu eta bideratuko ditu, haurrek eta nerabeek haien gaitasun sortzailea eta produktiboa bultzatzen eta bideratzen duten jarduerak eta proiektuak garatu eta azaleratu ahal izan ditzaten. Helburua da haurrentzat eta nerabeentzat interesgarriak izan daitezkeen banakako eta taldeko hainbat jarduera gauzatzea. | El servicio para la infancia y la adolescencia generará y dinamizará oportunidades reales para que las niñas y niños y adolescentes puedan desarrollar y visualizar actividades y proyectos en los que se potencie y canalice su capacidad creativa y productiva. El objetivo es posibilitar la materialización de actividades individuales y colectivas diversas en las que pueden tener interés las niñas, niños y adolescentes. |

Bertan kotze kopia kontrolatua da. Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/es/Publico/Gestiona/plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 18

**2.- XEDEA**

Plegu honen xedea da Mendaroko udalerriko haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak eskaintzeko baldintza teknikoak arautzea, Gipuzkoako haurren eta gazteen promoziorako sistemaren baitan: Gaztematika.

**2.1 Zerbitzu bakoitzaren helburu orokorrak eta helburu zehatzak**

**- Haurrekin beraiekin lotutako helburuak:**

1.- Beren haur izaera ingurune ez formal eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.

2.-Betebeharrik gabeko beren denbora, aisia, era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasuntsuan gozatzea, ongizatea eta garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko.

3.- Bizitzarako oinarrizkoak diren jarrerak eta trebetasunak eskuratzea eta garatzea (hala nola, kognitiboak, sozialak, psikomotrizitatekoak, afektiboak e.a.).

4.- Beren artean haur-izaeren aniztasuna ezagutu eta haur izateko modu desberdinak onar ditzaten erraztea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.

5.- Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea.

6.- Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabezarora) erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.

7.- Beren inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, nola aldatu pentsatzera bultzatzea.

8.- Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.

9.-Jakin-nahia bultzatzea eta oinarrizko informaziora iristen laguntzea, gizartearen partaide aktiboak izan daitezen.

10.- Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden heldu onuragarriak haurren eskura jartzea, haurren heltze prozesua erraztu eta laguntzeko.

11.-Hainbat gaitasunen garapena sustatzea: hala nola, erabakiak hartzea, iritzia ematea eta parekoen taldearekin eztabaidan jardutea, duten gaitasunaren arabera, eta haien interesekoak diren gaietan.

12.-Konfiantzazko harremana oinarri izanik, hezkuntza prozesuak eraikitzeko esparru egonkorrak sortzea.

13.-Haurrei eskolaz kanpo ere euskaraz bizitzeko gune babestu eta atsegin bat eskaintzea, euskararen erabilera eta atxikimendua indartuz eta euskal nortasuna eta kultura bultzatuz.

**2.- OBJETO**

El presente pliego tiene por objeto la regulación de las condiciones técnicas para la prestación de los servicios para la infancia y para la adolescencia en el municipio de Mendaro en el marco del sistema para la promoción de la infancia, adolescencia y juventud de Gipuzkoa, Gaztematika.

**2.1. Objetivos generales y específicos de cada uno de los servicios**

**-Objetivos vinculados a la infancia:**

1.- Posibilitar el desarrollo de ser niños y niñas de un modo favorable en un entorno no formal y lúdico.

2.-Gozar de su tiempo sin obligaciones, de su ocio, de modo activo participativo, creativo y saludable, con el fin de impulsar el bienestar y el desarrollo personal y social.

3.- Adquirir y desarrollar las actitudes y las habilidades básicas de la vida (es decir, cognitivas, sociales, psicomotrices, afectivas, etc.)

4.- Conocer las diferentes formas de ser niños y niñas y facilitar la aceptación de esos modos diferentes de ser. Crear dinámicas para la convivencia de la diversidad idiosincrática.

5.- Promover e impulsar la convivencia grupal y las relaciones intergrupales.

6.- Facilitar las transiciones (de la infancia a la adolescencia), teniendo en cuenta los diversos ritmos y situaciones.

7.- Promover el conocimiento, el entendimiento y el pensamiento para cambiar la realidad cercana a su entorno.

8.- Hacer que se sientan sujetos activos que participan en los temas comunes.

9.- Impulsar el deseo de conocimiento y facilitar el alcance de la información, para que participen activamente en la sociedad.

10.- Poner a disposición de los niños y niñas una serie de personas adultas beneficiosas que, estando dispuestas a crear una relación eficaz, faciliten y acompañen el proceso madurativo de estos/as.

11.-Promover el desarrollo de diferentes capacidades: es, la adopción de decisiones, el hecho de dar opiniones y debatir con el grupo de iguales en temas que sean de interés, de acuerdo con las capacidades que poseen.

12.- Crear marcos estables para la construcción de procesos educativos basados en relaciones de confianza

13.-Ofrecer a los niños y niñas un espacio protegido y agradable para vivir en euskera incluso fuera de la escuela, potenciando el uso y el apego al euskera y fomentando la identidad y la cultura vascas.

Baliozkotze-kodea: 7CDAXQTMM4AQ2SKRGMW34EH4
Egiaztatu sinadura: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 18

**-Helduen Gizartearekin lotutako helburuak:**

1.- Helduen gizarteari haurtzaroa zer den eta haurrek beraien eskubideetan oinarrituta etapa horretan dituzten beharrak zein diren azaltzea, aukerak sortuz.

2.- Hezkuntza-denbora delako ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin, beste profesional batzuekin nerabeak aktiboki hezteko modu egokiak lantzea.

**-Beste profesional batzuekin lotutako helburuak:**

1.- Haurrez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea.

2.- Haurrei arreta emateko sareko lan–sistema komunitario batean parte hartzea.

**Nerabeentzako zerbitzua:**

**-Nerabeekin beraiekin lotutako helburuak:**

1.- Beren nerabe-izaerak, ulertzen eta kudeatzen laguntzea.

2.- Beren nerabe-izaerak ingurune ez formal eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.

3.-Betebeharrik gabeko beren denbora betetzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sorkuntzakoak ahalbidetzea.

4.- Jarduerak antolatzeko, nork bere burua antolatzeko eta beren denborak kudeatzeko nerabeek egiten dituzten proposamenak jaso eta erraztea.

5.- Beren artean nerabe-izaeren aniztasuna ezagutu eta nerabe izateko modu desberdinak onar ditzaten erraztea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.

6.- Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea.

7.- Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabezarora eta nerabezarotik gaztarora), erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.

8.-Arriskuen kudeaketaren ikaskuntza lantzea.

9.- Beren inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, nola aldatu pentsatzera bultzatzea.

10.- Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.

11.- Jakin-nahia bultzatzea eta oinarrizko informaziora iristen laguntzea, gizartearen partaide aktiboak izan daitezen.

12.- Ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta

**-Objetivos vinculados a la sociedad adulta:**

1.- Explicar a la sociedad adulta qué es la infancia y las necesidades que tienen en esa etapa, de acuerdo con sus derechos, creando oportunidades.

2.- Difundir entre las familias la idea de tiempo educativo. Trabajar junto con las madres y padres y otros profesionales las formas adecuadas de educar activamente a las y los adolescentes.

**-Objetivos vinculados a otros profesionales:**

1.- Crear y compartir con los/as profesionales de diferentes recursos y sistemas que se ocupan de la infancia las formas adecuadas y eficaces de atender a esas personas.

2.- Participar en un sistema de trabajo comunitario para atender a la infancia.

**Servicio para Adolescentes:**

**-Objetivos vinculados a las y los adolescentes.**

1.- Ofrecer ayuda para comprender y gestionar la idiosincrasia adolescente.

2.-Posibilitar el desarrollo de la adolescencia de un modo favorable en un entorno no formal y lúdico.

3.-Gozar de su tiempo sin obligaciones, de su ocio de modo activo participativo, creativo y saludable, con el fin de impulsar el bienestar y el desarrollo personal y social.

4.- Facilitar y recoger las propuestas que realizan las y los adolescentes para organizar actividades, para organizarse a sí mismos y para gestionar sus tiempos.

5.- Conocer las diferentes formas de ser adolescente y facilitar la aceptación de esos modos diferentes de ser. Crear dinámicas para la convivencia de la diversidad idiosincrática.

6.- Promover e impulsar la convivencia grupal y las relaciones intergrupales.

7.- Facilitar las transiciones (de la infancia a la adolescencia y de la adolescencia a la juventud), teniendo en cuenta los diversos ritmos y situaciones.

8.- Trabajar al aprendizaje de la gestión de riesgos.

9.- Promover el conocimiento, el entendimiento y pensamiento para cambiar la realidad cercana a su entorno.

10.- Hacer que se sientan sujetos activos que participan en los temas comunes.

11.- Impulsar el deseo de conocimiento y facilitar el alcance de la información, para que participen activamente en la sociedad.

12.- Promover y posibilitar la creación y difusión de ideas.

Baliozkotze kodea.: 7CDAXGTMM4AQ2SK5RGMW34EH4
Egiaztatu: https://mendaro.egoitza.eus/eu/egiaztatu-elektronikoa
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 18

ahalbidetzea.

13.- Sorkuntza suspertu eta ahalbidetzea (nerabeen adierazpen gisa eta arte-sorkuntza moduan).

14.- Konfiantzazko harremana oinarri izanik, hezkuntza prozesuak eraikitzeko esparru egonkorrak sortzea.

15.- Nerabeei eskolaz kanpo ere euskaraz bizitzeko gune babestu eta atsegin bat eskaintzea, euskararen erabilera eta atxikimendua indartuz eta euskal nortasuna eta kultura bultzatuz.

16 -Harreman eragingarriak lantzea, nerabeen eremuetan, presentzia izanez; jarduerak dinamizatuz; laguntza-eskaintzen bidez.

17.-Beren autonomia suspertzea eta beren jokaerek erantzuna izan dezaten erraztea, nork bere erantzukizuna landu ahal izateko.

**-Helduen Gizartearekin lotutako helburuak:**

1.- Helduen gizarteari nerabezaroa eta nerabeek aldi hori bizitzeko dituzten moduak ulertaraztea. Nerabe-izaera desberdinen normalizazioa ahalbidetzea.

2.- Hezkuntza-denbora delako ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin, beste profesional batzuekin nerabeak aktiboki hezteko modu egokiak lantzea.

**-Beste profesional batzuekin lotutako helburuak:**

1.- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea.

2.- Nerabeei arreta emateko sareko lan–sistema komunitario batean parte hartzea.

**2.2. Bestelako zehaztasunak**

Zerbitzu bakoitzak egingo duen eskaintza arreta eskaintzen zaien pertsonen beharrizanetan eta eskaeretan oinarrituko da. Ezinbestekoa da beharrizanak eta eskaerak antzematea; izan ere, horietan oinarritzen dira programako ekintzak.

Zerbitzu hauek promozio edo gazteria politikaren 6 jarduera ildoak edo jarduera esparruak, agiriaren hasieran zerrendatutakoak, garatzen direneko guneak dira.

Era berean, kontuan izan behar da zerbitzuen hartzaileen zuzeneko partaidetza sustatuko dela, haien interesekoak diren gaietan, eta prozesuak hartzaileen ahalmenetara eta aukeretara egokituta. Partaidetza lan egiteko era zentral eta estrategikotzat joko da, eta fase eta zeregin guztiei eragingo die.

Zerbitzuetako jarduerak azpiegituren barruan nahiz

13.-Promover y posibilitar la creatividad (como modo de expresión de la adolescencia y creación de arte).

14.- Crear marcos estables para la construcción de procesos educativos basados en relaciones de confianza.

15.- Ofrecer a las personas jóvenes un espacio protegido y agradable para vivir en euskera incluso fuera de la escuela, potenciando el uso y el apego al euskera y fomentando la identidad y la cultura vascas.

16- Crear relaciones eficaces en los espacios de las y los adolescentes, dinamizando actividades, ofreciendo ayuda.

17.- Promocionar su autonomía y facilitar que sus comportamientos tengan una respuesta, para que cada persona trabaje su responsabilidad.

**-Objetivos vinculados a la sociedad adulta:**

1.- Explicar a la sociedad adulta qué es la adolescencia y las formas en las que se vive esa etapa. Posibilitar las diferentes formas de ser adolescente.

2.- Difundir entre las familias la idea de tiempo educativo. Trabajar junto con las madres y padres y otros profesionales las formas adecuadas de educar activamente a las y los adolescentes.

**-Objetivos vinculados a otros profesionales:**

1.- Crear y compartir con los/as profesionales de diferentes recursos y sistemas que se ocupan de la adolescencia las formas adecuadas y eficaces de atender a esas personas.

2.- Participar en un sistema de trabajo comunitario para atender a la adolescencia.

**2.2. Otras especificaciones**

La oferta que se realice en cada uno de los servicios se fundamenta tanto en las necesidades como en las demandas de las personas usuarias a las que atiende. Detectar las necesidades y demandas es imprescindible ya que sobre ellas se sustentan las acciones programáticas.

Los servicios son espacios para el desarrollo de las líneas o áreas de actuación de la política de promoción juventud, indicadas al inicio del documento.

También se debe tener en cuenta que se promoverá participación activa de las personas destinatarias de servicios, en temas de su interés y adaptando procesos a las capacidades y posibilidades de personas destinatarias. Se entenderá esta participación como una forma de trabajo central y estratégica que impregna todas y cada una de las fases y tareas.

Las actividades de los servicios se realizarán tanto dentro de las infraestructuras como al aire libre.

Bertiozkotze kodea: CC XXTM4Q2SK5RGMW1446P4
Egiaztapena: https://mendaro.sedipualde.eus
es.Publico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 18

kanpoan egingo dira.

Zerbitzuek hainbat estrategia abiaraziko dituzte, haurrak eta nerabeak udalerrian nahiz inguruetan haientzat dauden zerbitzuetara, programetara eta ekipamenduetara hurbil daitezen.

**3.- ZEHAR LERROAK GARATZEA**

Oinarri hauetan zehaztutako zeharkako lerroak garatzeko estrategiak abiaraziko dira ikasturte bakoitzean, eta ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

- Euskaraz hazi, hezi eta bizi

Haur Zerbitzuaren eta Nerabe Zerbitzuaren hizkuntza euskara izango da, bai zerbitzu-hizkuntza gisa bai lan-hizkuntza gisa.

Mendaroko haur eta nerabeak euskaldunak dira, eta euskararen erabilera soziala indartzeari begira eta nerabe guztien aukera-berdintasuna bermatzeko, euskara erabiltzeko benetako aukerak eman behar zaizkie: euskararik ez dakitenak euskarara erakarriz eta euskara ikasteko baliabideak eta testuinguruak eskainita; euskara dakitenak kontzientziatuta eta ahaldunduta, eta denen artean euskararen aldeko dinamika berriak martxan jarrita.

Alde horretatik, Haurren Zerbitzua eta Nerabeen Zerbitzua euskararen erabilerarako gune babestua izango da, eta euskararen erabilera eta atxikimendua sustatzea ere izango du bere helburuen artean. Hezitzaileen ardura izango da haurrekiko eta nerabeekiko harremana eta hezitzaileen artekoa euskaraz izatea, nerabeen artean euskararen erabilera sustatzea eta, euskararekin bizipen positiboak izan ditzaten lortzea.

Era berean, euskararen erabilera sustatzeko erabiltzen ditugun estrategiek bat egin beharko dute Haurren eta Nerabeen Zerbitzuko beste zehar-lerroekin: herritarren aukera-berdintasuna, aniztasun kulturala, berdintasuna eta komunitatean haur eta nerabeen parte-hartzea.

Integraziorako hizkuntza da euskara Mendaron, eta NZko hezitzaileek nerabe horien euskalduntze- eta integrazio-prozesuan parte hartzen duten gainerako eragileekin koordinatuta lan egingo dute. Generoari dagokionez, berriz, hizkuntza bera genero berdintasuna garatzeko tresna baliagarria da, eta estrategiak zehazterakoan mezu motei adi aritu beharko dute hezitzaileek.

- Nerabe guztien arteko aukera berdintasuna.

Ludoteka eta Gaztelekua hurbileko ekipamenduak dira eta lotura sozialak sustatzeko gune gisa funtzionatuko du. Ekitatea abiapuntu izanda, haur eta nerabe guztien aukera berdintasuna bultzatuko da, bai ekintzetan baita harremanen sustapenean ere.

Los servicios ponen en marcha estrategias de acercamiento de niñas, niños y adolescentes, al conjunto de servicios, programas y equipamientos destinados a ellos y ellas, tanto en el municipio como en los alrededores.

**3.-DESARROLLO DE LINEAS TRANSVERSALES**

Cada curso escolar se pondrán en marcha estrategias para el desarrollo de las líneas transversales definidas en estas bases, teniendo en cuenta los siguientes criterios:

-Crecer, educar y vivir en euskera

La lengua del Servicio de Infancia y Adolescencia será el euskera, tanto como lengua de servicio como lengua de trabajo.

Los niños, niñas y adolescentes de Mendaro son euskaldunes, y de cara a reforzar el uso social del euskera y garantizar la igualdad de oportunidades de todos los adolescentes, hay que darles posibilidades reales de utilizar el euskera: atrayendo al euskera a quienes no saben euskera y ofreciendo recursos y contextos para aprenderlo; concienciando y empoderando a los que saben euskera, y poniendo en marcha entre todos nuevas dinámicas a favor del euskera.

En este sentido, el Servicio de Infancia y el Servicio de Adolescencia será un espacio protegido para el uso del euskera, que tendrá también entre sus objetivos fomentar el uso y la adhesión del euskera. Los educadores serán responsables de que la relación con los niños, niñas y adolescentes y entre los educadores sea en euskera, de que fomenten el uso del euskera entre los adolescentes y de que tengan vivencias positivas con el euskera.

Asimismo, las estrategias que utilicemos para fomentar el uso del euskera deberán alinearse con las otras líneas transversales del Servicio de Infancia y Adolescencia: igualdad de oportunidades de la ciudadanía, diversidad cultural, igualdad y participación de niños, niñas y adolescentes en la comunidad.

El euskera es lengua de integración en Mendaro y los educadores d trabajarán en coordinación con el resto de agentes que participan en el proceso de euskaldunización e integración de estos adolescentes. En cuanto al género, la propia lengua es una herramienta útil para desarrollar la igualdad de género, y los educadores deberán estar atentos a los tipos de mensajes a la hora de definir las estrategias.

- Igualdad de oportunidades entre todos los adolescentes.

Ludoteca y Gazteleku son equipamientos de proximidad y funcionará como espacio de promoción de vínculos sociales. Desde la equidad se potenciará la igualdad de oportunidades de todos los niños, niñas y adolescentes, tanto en las acciones como en el fomento de las relaciones. Este espacio público fomentará las relaciones repetitivas y comunitarias. Será el punto de acogida de todos los niños, niñas y adolescentes, así com

Edozein kopia paperezkoa da. Sinadura elektronikoa duen dokumentu elektronikoaren kopia. Sinadura elektronikoa duen dokumentu elektronikoaren kopia. Sinadura elektronikoa duen dokumentu elektronikoaren kopia

Espazio publiko honek harreman errepikakor eta komunitarioak sustatuko ditu. Haur eta Nerabe guztien harrera gunea izango da, baita nerabeen arretan inplikatutako eragile guztientzat ere.

- Kulturartekotasuna

Halaber, zerbitzua harreragunea izango da Mendarora iritsi berri diren familientzat, eta familia horien integrazioa landuko da kulturarteko ikuspuntu batetik. Alegia, integrazioa zerbitzua erabiltzen duten familia guztiekin landuko da, eta ez bakarrik kanpotik iritsitakoekin.

- Berdintasuna

Bizitzaren esparru guztietan nesken eta mutilen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatu eta bermatuko da. Era berean, Haurren Zerbitzua eta Nerabeen Zerbitzua berdintasuneko espazioa izango da eta komenigarria den kasuetan nesken ahalduntzea sustatzea eta hauteman daitezkeen desberdintasunak ezabatzeko esku hartzeak bideratuko dira. Generoaren araberako rol tradizionalak saihestuko dira, eta antolatutako jardueren euskarri, dokumentu eta publizitatean hizkuntza eta irudi parekideak erabiliko dira.

Haur eta Nerabe guztien espazioa izango da eta ez da diskriminaziorik onartuko sexua, ideologia, jaioterria, nazionalitatea edo sexu-joera bezalako arrazoiengatik.

Jarduera horren eduki bakar batek ere ez du edukiko inolako mezu eta/edo ikonografia sexistarik.

- Komunitatean parte hartzea

Komunitatea indartzeko tresna da parte hartzea. Haurrek eta Nerabeek kasu honetan komunitatetan duten protagonismotik prozesu desberdinen garapena bideratuko da. Herritartasun aktiboa eta nerabeen autonomia garatzeko funtsezko baliabideak dira, eta era berean, desberdintasunen konpentsaziora bideratzeko tresna.

**3.- <u>ZERBITZUEN HARTZAILEAK</u>**

3.1. Haurrentzako zerbitzua (Ludoteka): udalerriko 4 urtetik 10 urtera arteko haur guztiei eskainiko zaie (HH4-LH4), baita heziketa premia bereziak dituzten haurrei ere.
Behar bereziak dituzten haurren balorazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politikako Departamentuak egingo du.

HH4-LH4 bitarteko haurrek zerbitzua erabiltzeko hilabeteko kuota ordaindu beharko dute, udal ordenantzetan zehaztutakoaren arabera.

3.3. Nerabeentzako zerbitzua (Gaztelekua):

todos los agentes implicados en su atención.

-Interculturalidad

Asimismo, el servicio será un punto de acogida para las familias recién llegadas a Mendaro y se trabajará la integración de estas familias desde un punto de vista intercultural. Es decir, la integración se trabajará con todas las familias usuarias del servicio y no sólo con las llegadas de fuera.

-Igualdad

Se promoverá y garantizará la igualdad de oportunidades y trato de chicas y chicos en todos los ámbitos de la vida. Asimismo, el Servicio de Infancia y el Servicio de Adolescencia será un espacio de igualdad y en aquellos casos en los que sea conveniente se fomentará el empoderamiento de las chicas y se canalizarán las intervenciones para eliminar las desigualdades que se puedan detectar. Se evitarán los roles tradicionales en función del género y se utilizará un lenguaje e imágenes igualitarias en los soportes, documentos y publicidad de las actividades organizadas
.
Será el espacio de todos los niños, niñas y adolescentes y no se admitirán discriminaciones por motivos como el sexo, la ideología, el lugar de nacimiento, la nacionalidad o la orientación sexual.

Ningún contenido de esta actividad contendrá mensajes y/o iconografías sexistas
.
- Participación comunitaria

La participación es un instrumento de fortalecimiento comunitario. Desde el protagonismo de los niños, niñas y adolescentes en las comunidades en este caso se orientará el desarrollo de diferentes procesos. La ciudadanía activa y la autonomía de las y los adolescentes son recursos fundamentales para el desarrollo, así como un instrumento para la compensación de las desigualdades

**3.- <u>PERSONAS DESTINATARIAS DE LOS SERVICIOS</u>**

3.1. Servicio para la Infancia (ludoteca): se ofertará a todas las niñas y los niños del municipio de 4 a 10 años de edad (EI4 – EP4), incluidos/as los/as niños/as con necesidades educativas especiales.
La valoración de las niñas y niños con necesidades especiales se realizará desde el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
Los niños y niñas entre EI-4 y EP4 deberán abonar la cuota mensual para la utilización del servicio, de acuerdo con lo establecido en las ordenanzas municipales.

3.3. Servicio para adolescentes (Gazteleku): se ofertará a todos/as los/as adolescentes del municipio de 11 a 18 años de edad, incluidos/as los y las adolescentes con necesidades educativas especiales.

Bazkoitu Kod.: 7C4AX5TMM4AQ2SKRGMWQ4344
Egiaztatu: https://mendaro.egoitza.eus/eu/egiaztatu
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 18

udalerriko 11-17 urte arteko nerabe guztiei eskainiko zaie, baita heziketa premia bereziak dituzten nerabeei ere.

Behar bereziak dituzten nerabeen balorazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politikako Departamentuak egingo du.

Adin tarte zabal honen barnean dauden haur eta nerabeen errealitate, gaitasun eta behar desberdinak kontuan izanik, eskaintza desberdina izango da eta adin mota bakoitzari egokituko zaio.

Erabiltzaileen aniztasuna kontuan izango da (adina, jatorria, ikastetxea, generoa e.a.); horretarako, aniztasun hori lortu ahal izateko estrategiak antzeman, aztertu eta diseinatuko dira etengabe.

Horretaz gain, zerbitzuen zeharkako hartzailetzat joko dira haurren eta nerabeen heziketaren gaineko erantzukizuna partekatzen duten pertsonak (gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, e.a.).

**4.- <u>ZERBITZUEN ESKAINTZA</u>**

Zerbitzuak, Udalak horientzako ezarrita dituen helburuak lortzeko asmotan eskainiko dira.

Zerbitzuen arduradun nagusia Mendaroko Udaleko Herritartasuna arloa izango da (zinegotzia, herritartasun teknikaria eta dinamizatzailea).

Esleipendunak udal arduradunak zehaztutako jarraibideak eta arauak jarraitu beharko ditu beti. Jarraibideak baldintza teknikoen plegu honetan zehaztuko dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailak dituen misioari, irizpideei eta printzipioei eta zehar-lerroei jarraituko die, eta baita zerbitzu motei, jarduera esparruei eta abarrei ere.

Zerbitzuak eskaintzerako orduan, bi esparru zabal bereizten dira: alde batetik, erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egin behar den lana, eta bestetik, 1/3 barne lanetarako zehaztuko da (Gaztematikako foroak, formazioa, planifikazio eta ebaluzaioa).

**4.1 Zuzeneko arreta**

Zerbitzu bakoitzaren hartzaileei agiriaren hasieran aipatutako sei jarduera motak edo jarduera esparruak eskainiko zaizkie. 6 jarduera ildo hauek zerbitzu bakoitzean proposatzen diren xedeak lortzen joateko lanabesak edo baliabideak dira.

Nolanahi ere, adin tarte desberdinak kontuan izanik, eta hartzaileen ezaugarriak adinaren arabera aldatzen direla jakinik, jarduera ildoei ematen zaien lehentasuna ere aldatu eta erabiltzaileen beharrizanetara egokitu egingo da. Ildo horretatik, haurrentzako zerbitzuaren gune garrantzitsua aisia

La valoración de los adolescentes con necesidades especiales se realizará desde el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
Debido a las diferentes realidades, capacidades y necesidades de los/las niños/as y adolescentes en un tramo de edad tan amplio, la oferta deberá ser diferenciada y adaptada a cada franja de edad.

Se perseguirá la diversidad de las personas usuarias (edad, origen, centro educativo, género, etc.); para ello se realizará una detección continuada, análisis y diseño de estrategias que pretendan lograr dicha diversidad.

También se consideran destinatarias indirectas de los servicios a las personas adultas que comparten la responsabilidad educativa de las niñas, niños y adolescentes (padres-madres, personas educadoras, profesores/as, etc.)

**4.- <u>PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS</u>**

La prestación de los servicios estará orientada hacia la consecución de los objetivos que para ellos tiene establecidos el Ayuntamiento.

El responsable principal de los servicios será el área municipal de Ciudadanía del Ayuntamiento de Mendaro (concejal, el/la técnico/a de ciudadanía y la dinamizadora).

El adjudicatario deberá seguir siempre las instrucciones y normas que determine el responsable municipal. Las instrucciones se especificarán en este pliego de prescripciones técnicas. Seguirá la misión, criterios y principios y líneas transversales del Departamento de Promoción de la Infancia, la Adolescencia y la Juventud de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como el tipo de servicios, ámbitos de actuación, etc.

En la prestación de los servicios, se diferencian dos grandes ámbitos: por un lado el trabajo a desarrollar desde la atención directa con las personas usuarias, y por otro, se destinará 1/3 del tiempo a trabajos internos (foros de juventud, formación, planificación y evaluación).

**4.1. Atención directa**

Desde cada uno de los servicios se ofrece a las personas usuarias los seis tipos de actuación o áreas de acción mencionadas al comienzo del documento. Estas 6 líneas de actuación son las herramientas o instrumentos para lograndolos objetivos que se plantean en cada uno de los servicios.

En cualquier caso, teniendo en cuenta las diferentes franjas de edad y que las características de las personas destinatarias varían en función de la edad, el grado en que se prioricen las áreas de actuación también variará y se adaptará a las necesidades de éstas. En este sentido, el núcleo central en el servicio para la infancia será el de ocio educativo. En cambio, en el servicio

Baliozkotzeko kodea: CDAX5TW4-MQ2BK-GMW34EH4
